



LOMCE: hezkuntza eragileon adierazpena

Adierazpen honen sinatzaileok ezaugarri nagusi batek batzen gaitu: gure aniztasunak. Anitzak gara eta, gure hezkuntza sistemaren eraikitzeari dagokionez, ikuspegi anitzak ditugu gure baitan. Hala ere, bat gatoz LOMCE delako legearen edukia aztertzerakoan, bere ezarpenak gure ikasleriaren heziketarako eta gure hezkuntza sistema propioa eraikitze bidean ekarriko lituzkeen ondorioengatik. Honek agerraldi honetara ekarri gaitu, eta honekin batera antolatuko ditugun ekintzetan parte hartzeko deia elkarrekin egiten dugu.

Nazioarteko azken ebaluaketek eta ebaluazio diagnostikoek adierazi duten bezala, gure ikastetxeen egoera eta errealitatea desberdinak dira Estatuko beste sistemekin alderatuz gero. Izan ere, gure adierazleak nabarmenki hobeak dira arlo hauetan: eskola-uzte goiztiarraren tasa, DBHko tituludunen portzentaia, enpresen atsegintasun-maila eta Lanbide Heziketaren lan-txertatze handia, goi-mailako ikasketen titulazio-tasa, eta abar. Era berean, badakigu zertan hobetu behar dugun eta ikasleen kompetentzia guztiak garatzea dela aurrerantzean gure erronka nagusia. Testuinguru honetan LOMCEren helburuak euskal eskola komunitateentzat ez dira esanguratsuak, ez dira egokitzen gure errealitatera.

Gure helburua ikasle euskaldun eleaniztunak sortzea da. Ondorioz, **euskara ardatz duen eredu bakarra** behar dugu, eta ikaslearen ingurune soziolinguistikoa eta gaitasun psikologikoak kontutan hartuko dituen ikaskuntza metodologia ezarri. LOMCEk zalantzan jartzen du planteamendu hau, ez baita bermatzen eta indartzen hizkuntza koofizialen esparruetan hizkuntzarik ahulena (planteamendu honek euskararen aurka jotzen du). Halaber, enborreko jakintzagaia ez izanik, bigarren mailako hizkuntza bihurtzen du.

Bestalde, eskolan euskaraz ikasteak bakarrik ez du ekarriko euskararen normalizazioa, eta hizkuntzaren rola testuinguru bakoitzean zein den argitu behar da. Hori da, hain zuzen, lege honek baimentzen ez duena.

Aldi berean, adierazi nahi dugu gure desadostasuna Legeak sustatzen duen hezkuntza eredu eta irizpide baztertzailerekin. Aitzitik, **eskola inklusiboa, konpentsatzailea eta integratzailea** bultzatzen dugu, hots, ikasle guztientzako aukera berdintasunean, ekitatean eta kalitatean oinarritzen den hezkuntza. Hori dela eta, ezin gara bat etorri 14 urtetik aurrera ikasleak sailkatu eta bereizi egiten dituen lege batekin: DBH bukatzean bi graduatu-titulu mota, "lehen eta bigarren mailako" arloak eskaini, prestakuntza-ibilbide zurrinak, pasabiderik gabeko eskaintza ... Hitz gutxitan, ikasleen bazterkeria eta bereizkeria dira nagusi. LOMCEk ez du ikasle guztien eskola emaitzen aurrerapena bultzatzeko hobekuntza proposamenik eta planik ahalbideratzen. Honela XXI mendeko kompetentziak (autonomia, inguru nahasietan moldatzea, inizatibaduna izatea, etab) nekez eskuratuko dira.



Halaber, curriculumaren antolaketak **hezkuntza sistemaren uniformetasuna eta kontrola** bultzatzen ditu, hezkuntza eta ikasle eredu bat sustatuz: curriculum-ataleko helburu zurrinak ezartzea, Gobernuak erabakitako irizpideen bidez ebaluatu eta neurtzea, DBH eta Batxilergoa bukatzerakoan errebalidak eta bitarteko mugarrak LHn tartekatzea, eskuraturiko datuekin eskolen sailkapena egin eta hauexek publiko bihurtzea, sektoreko profesionalak eta eskolak ahalegin horretan jarduten ipintzea eta “estandar” jakin batzuetara iristen ez diren eskolen gaineko zehaztu gabeko neurriak hartzea dira proposatzen diren bideak. Non kokatzen da eskolen eginkizuna? Bide honetan ikastetxeak ez dira nolabaiteko “akademia” bilakatzen?.

Aurreko aukeretatik abiatuz, Legeak ikastetxeen autonomia murrizten du, gehiena kanpotik erabakiz. Hezkuntza-esperientzia aurreratuenek hau adierazten digute: ikastetxeon autonomian sakontzea, eskola komunitatearen partaidetza eta erabakimena antolatzea, curriculum eta hezkuntza planteamenduak ikasleen beharretara egokitzea eta kompetentzia guztien ebaluaketa eredu malguak ezartzea, ezinbestekoak direla hobekuntza sustatzeko. Legeak, partekatzen ez dugun kalitatearen kontzeptua planteatzen du, zeren guretzako kalitatea **ikasle guztien arrakasta bermatzea** delako, aukera berdintasuna irizpide izanik, horretarako behar diren prozesuak, antolaketa, baliabideak eta esperientziak eskainiz eta trukaturik, bikaintasuna eta ekitatean oinarrituriko guztiontzako hezkuntza sistema bat eraiki ahal izateko.

Gure iritziz, hezkuntza sistema iraunkortasunez hobetu nahi bada, ezinbestekoa da alderdi politikoen eta eragileen **parte-hartzea eta adostasuna**. Gure Hezkuntzaren gaurko errealitatea eta gure ikastetxeetan urteetan egindako ahalegina ahaztu egin du Wert Ministroak. Gure aldetik, bestelako bidea proposatzen dugu: praktikaren gaineko hausnarketa eta gogoeta eginez, hezkuntza sistema aurreratuenen esperientzia kontuan hartuz eta Euskal Herriaren testuinguruan aplikatuz, **gure Hezkuntza Sistema eta Curriculum Propioa** pixkanaka eraikiz joatea. Horregatik guztiarengatik ozen aldarrikatu nahi dugu:

LOMCEri EZ, Gure Hezkuntzari BAI.

2013ko Otsailak 15

EHIGE, BIHE, SAREAN, IKASTOLEN ELKARTEA, ERKIDE IRAKASKUNTZA, SORTZEN-IKASBATUAZ.

KRISTAU ESKOLA, BIDELAGUN, IKASLE ABERTZALEAK, HETEL, IKASLAN, CCOO, FETE-UGT, HETEL, EIB, ELIZ BARRUTIKO IKASTETXEAK, IKASGILTZA, EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN KONTSEILUA, HIK HASI.



LOMCE: Manifiesto de los agentes educativos

A los agentes educativos firmantes de este manifiesto nos une una característica, nuestra diversidad. Somos diversos, y tenemos puntos de vista diferentes sobre la construcción de nuestro sistema educativo. Sin embargo, al analizar los contenidos de la LOMCE, coincidimos en las graves consecuencias que podría generar la ley en el proceso educativo de nuestro alumnado. Esta situación nos ha impulsado a convocar esta comparecencia y, con ella, a hacer un llamamiento a la participación en los actos que hemos organizado.

Como han reflejado las últimas evaluaciones internacionales y las evaluaciones de diagnóstico, la situación y realidad de nuestros centros es diferente a la de otros sistemas educativos del Estado: las tasas de abandono escolar temprano, el porcentaje de alumnado titulado en ESO, la alta satisfacción de las empresas y de inserción laboral de la FP, las tasas de titulados superiores,..., son significativamente mejores. De la misma forma, sabemos en qué debemos mejorar, y que el desarrollo de todas las competencias de nuestro alumnado es nuestro principal reto. En este contexto, los objetivos que persigue la LOMCE no son significativos para las comunidades educativas vascas, no se adaptan a nuestra realidad.

Nuestro objetivo, es conseguir un alumnado euskaldun y plurilingüe. Por tanto, necesitamos **un modelo educativo único que tenga como eje principal el euskara**, e introducir una metodología de enseñanza-aprendizaje que tenga en cuenta el entorno sociolingüístico y las capacidades psicológicas del alumno. La LOMCE pone en cuestión este planteamiento, ya que no garantiza ni refuerza la lengua minorizada en las comunidades con lenguas cooficiales (este planteamiento va contra el euskara). Del mismo modo, no considerando al euskara como asignatura troncal la convierte en una lengua de segundo grado.

Por otra parte, el aprendizaje del euskara exclusivamente en la escuela no garantizará su normalización, y habrá que concretar el rol de la lengua en cada contexto. Esto es justamente lo que esta ley no permite.

Asimismo, queremos manifestar nuestra discrepancia con el modelo educativo segregador que promueve esta ley. Por el contrario, defendemos **una escuela inclusiva, compensadora e integradora**, es decir, una educación basada en la igualdad de oportunidades para todo el alumnado, la equidad y calidad educativa. Por ello, no estamos de acuerdo con una ley que clasifica y diferencia al alumnado a partir de los 14 años: dos títulos de graduado al terminar la ESO, oferta de áreas “de primera y segunda clase”, itinerarios rígidos, oferta sin pasarelas,... En resumen, esta ley se fundamenta en la exclusión y la segregación del alumnado. La LOMCE no posibilita la puesta en marcha de propuestas y planes para la mejora de resultados de todo el alumnado. De esta forma difícilmente se logrará desarrollar las competencias del siglo



XXI (autonomía personal, adaptación a situaciones inciertas, ser emprendedor/a, etc...).

De la misma manera, la organización curricular que propone impulsa **la uniformidad y control del sistema educativo**, promoviendo un modelo educativo y de alumnado determinado: implementar objetivos no flexibles para las partes del curriculum, medir y evaluar en base a criterios decididos por el gobierno central, realizar revalidas al terminar la ESO y el Bachillerato e introducir controles en la Primaria, clasificar los centros en función de los resultados obtenidos y hacerlos públicos, orientar la labor profesional y de las escuelas hacia este único cometido, y adoptar medidas no concretadas para los centros que no alcancen unos determinados “estándares”. ¿Dónde se sitúa la función de la escuela? En este sentido, ¿no se convierten la escuelas en una especie de “academias”?

En la misma dirección que las medidas anteriores, esta ley reduce la autonomía de los centros, decidiéndose casi todo desde fuera. Sin embargo, las experiencias educativas más innovadoras nos señalan que profundizar en la autonomía de los centros, propiciar la participación y toma de decisión de la comunidad escolar, adaptar los planteamientos curriculares y de aprendizaje de las lenguas a las necesidades del alumnado e implementar modelos flexibles de evaluación de todas las competencias, son imprescindibles para promover la mejora educativa. Esta ley plantea un concepto de calidad educativa que no compartimos, ya que en nuestra opinión la calidad consiste en **garantizar el éxito escolar a todo el alumnado**, asegurando para ello los recursos, procesos, organización e intercambio de experiencias necesarias, para construir de esta manera un sistema educativo para todos y todas basado en la excelencia y en la equidad.

En nuestra opinión, si queremos un sistema educativo que mejore e innove de forma continua, es imprescindible **la participación y el consenso** de los partidos políticos y los agentes educativos. El ministro Wert ha ignorado la realidad actual de nuestro sistema educativo, y el trabajo realizado durante años en nuestros centros. Por nuestra parte, proponemos otro camino: partiendo de la reflexión sobre la práctica educativa, teniendo en cuenta las experiencias más innovadoras y su aplicación al ámbito de Euskal Herria, ir construyendo progresivamente nuestro sistema educativo propio. Por todo ello denunciamos con firmeza:

NO A LA LOMCE, SI A NUESTRO SISTEMA EDUCATIVO.

15 de Febrero de 2013

EHIGE, BIHE, SAREAN, IKASTOLEN ELKARTEA, ERKIDE IRAKASKUNTZA, SORTZEN-IKASBATUAZ.

KRISTAU ESKOLA, BIDELAGUN, IKASLE ABERTZALEAK, HETEL, IKASLAN, CCOO, FETE-UGT, HETEL, EIB, ELIZ BARRUTIKO IKASTETXEAK, IKASGILTZA, EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN KONTSEILUA, HIK HASI.



Eranskina

| Europa 2020 Hezkuntza helburuak | | | | | | | |
|--|----------------|------|------|-----------------|-----|--------------|--------|
| Helburua | 2010eko egoera | | | 2020ko helburua | | | Egoera |
| | EAE | Naf | Esp | EAE | Naf | Esp | |
| 1.- Haur Hezkuntza estaldura-maila | 100 | 100 | 99,4 | 100 | 100 | 99,87 | Lortua |
| 2.- DBHko titulazio-maila | 88,5 | 82,1 | 74,1 | 90 | 89 | 85,29 | Lortua |
| 3.- Eskola uzte goiztiarra (*) | 12,6 | 16,8 | 28,4 | 8,6 | 12 | 14,82 | Lortua |
| 4.- Titulazio-maila goi mailako ikask. | 60 | 50,3 | 40,6 | 68 | 54 | 45,78 | Lortua |
| 5.- Bizitzan zeharko formazioa | 13 | 13,2 | 10,8 | 16 | 17 | 15,18 | |